

**NEGAR ZOTINAREN ESPASMOA**  
**ESPASMO DE SOLLOZO**

Zure seme-alabak orain dauzkan sintomak kontuan hartuta, hauxe da egindako diagnostikoa: **NEGAR-ZOTINAREN ESPASMOA**

**ZER DA?**

Episodio honetan, umeak arnasa hartzeari uzten dio segundo batzuetan, eta berez itzultzen da bere onera.

**NOLA IGARRI?**

Espasmoa negar biziaren hasieran edo izutu ondoren agertzen da, segundo batzuetan arnasa hartzeari uzten dio eta urdinxka edo zurbil jartzen da, bigun, tonurik gabe, konortea ere gal dezake.

Umea bere onera itzultzen da berez, eta normal dago berriro. Episodio osoak 1-2 minutu irauten du.

Negar-zotinaren espasmoa ez da konbultsioa eta ez du ondorioz uzten; espasmoak edukitzea ez da gaixotasuna.

Beti gertatzen da bizitzako lehen urteetan. Gero desagertu egiten dira.

**ZER EGIN?**

Garrantzitsua da erreakzionatzeko ez astintzea, edo kolpatzea, edo ur hotza botatzea, etab., min egin ahal diozulako. Gogora ezazu segundo batzuetan berez hasiko dela berriro arnasa hartzen.

Ez larritu edo beldurtu umea negarrez hasten den bakoitzean, utzi negar egiten garrantzirik eman gabe, bestela zure umeak xantaia egingo dizu-eta.

Koadroa ohikoa bada eta diagnostikoa argi badago, ez da inolako probarik egin behar, dena normala izango da-eta.

**ZERI JARRI BEHAR DIOZU ARRETA?**

- Umeak arnasa hartzeari uztea beste egoera batuetan.
- Episodioaren ondoren, bere onera guztiz ez badator edo aurreko egoerara itzultzen ez bada.
- Zurruntasuna eta ezohiko mugimenduak badaude gorputz-adarretan.
- Goibel, loguraz badago.
- Kasu hauetan edo kezkatzen zaituen beste edozer nabaritzen badiozu, jo ezazu zure osasun-zentrorra edo larrialdietako zerbitzu batera, pediatriak beste azterketa bat egin beharko baitio zure seme-alabari.

**GOGOAN IZAN** negar-zotinaren espasmoa gehiagotan gerta daitekeela egoera berdinetan, baina berez desagertzen dela eta ondorioz ez duela uzten.

Su hijo ha sido diagnosticado de **ESPASMO DE SOLLOZO**, por los síntomas que presenta en este momento.

**¿QUE ES?**

Es un episodio en que el niño deja de respirar durante unos segundos y que cede espontáneamente.

**¿COMO RECONOCERLO?**

El espasmo aparece al inicio del llanto intenso o tras asustarse; deja de respirar durante unos segundos y se pone azulado o pálido, blando, sin tono, incluso puede perder el conocimiento.

El niño se recupera espontáneamente, volviendo a estar normal. Todo el episodio dura 1-2 minutos.

El espasmo del sollozo no es una convulsión ni deja secuelas; tenerlos no es una enfermedad.

Ocurre siempre en los primeros años de la vida, después desaparecen.

**¿QUE HACER?**

Es importante no agitar, golpear, echar agua fría, etc., para que reaccione, ya que le puede hacer daño. Recuerde que vuelve a respirar espontáneamente en unos segundos.

No muestre ansiedad o se asuste cada vez que el niño se ponga a llorar, déjele llorar sin darle importancia, no deje que su hijo le chantajee.

Si el cuadro es típico y el diagnóstico está claro no se deberá hacer ninguna prueba ya que todo va a ser normal.

**¿QUE DEBE VIGILAR?**

- Que el niño deje de respirar en otras circunstancias diferentes a las mencionadas arriba.
- No recuperación completa de la conciencia o del estado previo del niño tras el episodio.
- Rigidez y movimientos anormales de las extremidades.
- Decaimiento, tendencia al sueño.
- En estos casos o si nota cualquier otra cosa que le preocupe deberá acudir a su Centro de Salud o a un Servicio de Urgencias ya que su hijo deberá ser valorado de nuevo por un pediatra.

**RECUERDE** que el espasmo del sollozo se puede repetir otras veces en las mismas circunstancias, que cede espontáneamente y que no deja secuelas.